

SUMMER PLUS PRIMARY ikasleei **ingeles hizkuntzaren esparru guztietan** garatzen laguntzen dieten ikuspegi eta dinamika ezberdinez osatzen da. Ikasteko interesa sustatuko duten eskoletan parte hartuko dute, honako jarduera esparruak landuz:

Discover: zientzia esperimendu eta ikerketak.

Imagine: irakurketak eta ipuinak.

Create: antzerkia, eskulanak eta sukaldaritza.

Invent: robotika eta programazioa.

ETXEAN PRAKTIKATZEKO

- Ingeleseko ipuinak eta liburuak irakurri eta entzun.
- Ingeleseko abestiak entzun eta abestu.
- Gustuko dituzuen telebista-saioak ingelesez ikasi.
- Gure LearnEnglishKids orrialdean ingelesezko online jarduerak egin:
<https://learnenglishkids.britishcouncil.org/>

IKASLEEN GARAPENAREN EBALUAZIOA

Ikastaroan zehar, irakasleak zure seme-alabaren jardura behatu eta ingeles-maila ebaluatuko du. Ikastaroaren amaieran jorratu diren ingeles hizkuntzaren esparru guztien inguruko txostena emango dizuegu zure seme-alabaren garapena ikus dezazuen. Honako esparru edo eremu hauek ebaluatuko ditugu:

- **Hizkuntzaren erabilera testuinguruan:** Atazak osatzeko ingelesez komunikatzeko (speaking/pronunciation) eta gaiekin harremana duten hitzak/testu laburrak/idatzi mota ezberdinak idazteko (writing) gaitasuna.
- **Funtsezko hizkuntza antzeman:** ahozko hizkuntza ulertzeko gaitasuna (listening) eta gaiekin harremana duten testuak irakurtzeko eta ulertzeko gaitasuna (reading).
- **Jarrera, Interesa eta parte-hartzea.**

Auto-ebaluazioak egingo dira ikasleekin euren ikaskuntzaren berri izan dezaten, non hobetu ahal duten hauteman dezaten eta ikasle autonomoak bilaka daitezten. Gogoratu ikastaroan zehar irakaslearekin hitz egiteko aukera izango duzuela hala nahi izanez gero.

SHOW AND TELL

Ikastaroaren amaieran eskola batera etortzera gonbidatuko zaituztegu ikasleek egin dituzten lanen eta sorkuntzen **aurkezpen** batera eta landu dituzten antzezlan laburren antzezpenera.